


Toutes deux, elles comprirent, et toutes deux, elles furent s'effondrer sur les chaises basses de la cuisine.....

Ce fut un bruit de sanglots étouffés, et puis, le *De Profundis* s'éleva grave, apaisant, dans l'humble pièce aux poutres noircies de fumée.

NEHOR.



ESKUARAZ



*Tenez bertze andere gazlerik bada eskuara goersten due-
nik... mugaz bertzaldean, hala nola Julia Fernandez Za-
balela, eskuara luntik elzakiena, duela bi urte, eta orai,
Iruñako Ikasgukoari esker...*

*Behazue bada zer itzalditxo pollila adiarazi duen Napar-
rako Donesteben, Euskaltzaindiak han ospatu eskual egu-
nelarik batez, joan den Agorrilaren zortzian :*

JAUNAK : Badakizute euskera ikastera aurten asi nai-
zela, ta orrengatik ezta nere izaldia luzea izango .

Aurretik dijoala (1) nere agurra, lur eder ontara, nere
aberriko (2) puska maitagarri oni eta bere semiei eus-
kualdun on, zintzo ta bikaiñak (3) ama euskerari dago-

(1) Doala.

(2) Aberri = Patrie = Sortherri.

(3) Bikaina = Excellent = Hauta.

kion aintza ematen dutelako. Euskaldun guziak egiten al dute zuek bezela?

Donestebearrak, beste Naparrako semiak bezela, naigabez dira Naparrako eskubideak egunero banatzen (1) ari diralako, eta gure eskubidekin erriko mamia, gure ondasun ta aberastasuna.

Baño ez dute billatzen ea gaitz oien susterrak (2) nun ote diran. Zer egiten dute euskaldun geyenek bere oituraz (3) ta izkuntzez? Aztu, aldean utzi, eta aiekin aldean uzten dute erriko anima edo gogoa.

Begirazazute: Gu, ditugun gauz gustiak, gurasoak utzi ziguten eskubideak, eusko gauzak dira. Euskaldunak irabazi, euskadunak gorde. Izate bakoitzari izen bat, ta lege bat.

Baño... euskaldun bezela dagokiguna nai dugu gorde erdelduntu ta gero? Zer eskubidekin? Erdelduntu ta ez gera jabe ayek, beste jendeak gera. Eta bestei bezela egin bear zaigu.

Ez gerala besteak? Gure neskatillak, señoritagoak izango diralakoan erderaz egiten dute; gure jauntxok, Madridko señoritoak egiten duten gustia chinchilika daude, bere pensamentu ta borondatea ez daude inguratzendienetan, urrutian dauzkate, bere oiturak ez tira bere aitenak bezalakuak; arpegi ere aldatzen ari dira! Eta ala gure erria ezta gure erria bestebaten aintza txar bat baizik.

Toki guzietako arrotasuna antxiñako izatea oida, bertakoa, jatorra. (4) Ortan jartzen dute erri gustiak « Aristocracia » deritzan gauz ori.

Eta gu, zer egiten dugu? Aundiagoak izateagatik kampotarren kiuñak (5) ere txinmak (6) bezela berdintzen ditugu.

(1) Banatzen = Histen = Tchartzten.

(2) Susterrak = Racines = Erroak.

(3) Oiturak = Coutumes = Ohidurak.

(4) Jatorra = Pur = Garbia.

(5) Khiña = Mauvais goût.

(6) Txinma = Chiminoa = Singe.

Ala, ez gera izango ez gutarrak, ez bestetarrak; onela ez gera ez euskaldunak ez napartarrak eta orrengatik ez gera Naparrako eskubidearen jabiak ; eta olaxe Naparrak bere foruak galduko ditu.

Amaitzeko: Gure anima ta gorputzeko ondasunak, gure aberastasunak, gure eskubideak gorde nai baditugu izan gaitetzen euskaldun zinzoak Lur ontako andre gazte ta neskatxak! Euskeraz egin eskero, zure errian beintzat geyago balijoko duzute, eta zuek, jaunak, euskeraz izango zerate emengo jaunagoak eta gizonagoak.

Ori jakin dugulako asi gera Iruñako *estudiantiak* euskeraz ikasten eta emendik aurrera Naparrako buru dun seme guztiak euskuldunak izango dira beti, gure Napar santuaren aintzatako.

Esan dul.

JULIA FERNANDEZ ZABALETA

Iruñarra.

